Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Marian Durá Aldasoro

Donostia, Gipuzkoa (1945-2024)

Marian Dura

Aurkibidea

Biografia

Marian Dura

Gurasoak donostiarrak zituen, eta Arrasate kalean bizi izan da beti, hiriko erdigunean. Denda zuten Easo kalean, Riojana mertzeria. Aitaren aldeko aitona-amonek jarri zuten denda hori; errioxar jatorrikoak ziren. Zortzi urte arte isilpeko ikastoletan ibili zen, Parte Zaharrean, Itziar eta Amale Arzelus ahizpekin. Ondoren, eskola alemaniarrean ibili zen. Idazkaritza ikasi zuen, eta hizkuntzak ikastera ere joan zen atzerrira: ikasturte bat egin zuen Frantzian eta beste bat Erresuma Batuan. 20 urterekin etxeko dendan hasi zen lanean, eta hantxe ibili zen erretiroa hartu arte.

Zintak

DON-174

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2016-02-12
- **Iraupena**: 99 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

- **Kodifikatzailea**: Lizeaga, Irati

DON-175

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2015-06-20
- **Iraupena**: 9 min
- **Euskarria**: Audio digitala
- **Kodifikatzailea**: Lizeaga, Irati

Pasarteak

1. Gurasoak biak donostiarrak

- **Erref**: DON-174/002
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:01:46. **Bukatu**: 00:02:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Bi gurasoak donostiarrak zituen, baina amal Segurakoa zuen familia. Easo kalean denda bat zuen familiak.

2. "Los Riojaneros"

- **Erref**: DON-174/003
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:02:47. **Bukatu**: 00:05:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Aitonak eta amonak zabaldu mertzeria bat zabaldu zuten Eason, gero Marianen gurasoek hartu zutena.

3. Dendariaren bizimodua

- **Erref**: DON-174/005
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:05:58. **Bukatu**: 00:08:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Beharren araberako ordutegia izaten zuten dendan.

4. Urbieta kaleko arrain-saltzaileak

- **Erref**: DON-174/006
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:08:19. **Bukatu**: 00:09:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Arraina saltzean, diruarekin gurutzea egin eta bedeinkazioa ematen zioten bezeroari saltzaileek.

5. Amonaren Kasinoko lana

- **Erref**: DON-174/007
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:09:54. **Bukatu**: 00:11:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Amonak Kasinoan egiten zuen lan, apaintzeko produktuak saltzen. Behin, erregina joan eta bere hortzak goraipatu zituen.

6. Jende diruduna Donostian

- **Erref**: DON-174/008
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:11:58. **Bukatu**: 00:14:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa
- Politika » Gerra aurrea
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
Gerra zibilaren aurretik Donostian denda mordoa zegoen, baita jende diruduna ere.

7. Aberatsenak kapela jantzita

- **Erref**: DON-174/009
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:14:58. **Bukatu**: 00:16:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Aberatsenen ikurra zen txapela, Hain dirudunak ez zinerak, ordea, zapia jantzita. Inudeak ere ohikoak ziren orduan.

8. Primo de Riveraren debekuak

- **Erref**: DON-174/010
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:16:44. **Bukatu**: 00:18:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:
Inmorala zelakoan, jolasak, dantzak, inauteriak... debekatu zituen.

9. Kaldereroak eta San Sebastian eguna

- **Erref**: DON-174/011
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:18:40. **Bukatu**: 00:21:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Urtero irteten ziren kaldereroak, beti ere, falangistek antolaturik. San Sebastian egunean danborra jotzen ere ateratzen ziren, baina ez gaur bezainbeste.

10. "Kolorin" txotxongiloa

- **Erref**: DON-174/013
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:21:48. **Bukatu**: 00:24:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Alderdi Ederren jolasten ziren. Udako igandetan, ordea, txotxongiloa izaten zuten. Bestela, txingoka, eta kailoketan ere aritzen ziren.

11. Txantxillorekin batera eta bestera

- **Erref**: DON-174/014
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:24:29. **Bukatu**: 00:27:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Alderdi Ederreko iturrira joaten ziren egunik beroenetan, eta inguruan ibili ohi zen Txantxillo, merienda zati baten truke kromoak banatuz.

12. Ikastolako ikaslea

- **Erref**: DON-174/015
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:27:25. **Bukatu**: 00:30:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Ikastola klandestino batean ikasi zuen, Alde Zaharreko etxe batean. Amale eta Ixiar izan zituen irakasle. Guztira, hamabost bat ikasle ziren.

13. San Tomas eguneko antzerkia

- **Erref**: DON-174/017
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:32:02. **Bukatu**: 00:32:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Jai-giroa » Santo Tomas
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Zortzi urteak arte ikastolan ibili zen, eta San Tomas egunean Maria Dolores Agirrek antzerkia antolatzen zuela gogoratzen du Marianek Antzoki Zaharrean.

14. Eskola alemana

- **Erref**: DON-174/019
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:34:25. **Bukatu**: 00:36:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Intxaurrondoko eskola alemanera joan zen Marian. Hamar bat ziren gelan. Gainontzeko eskolekin alderatuta oso sistema pedagokiko aurreratua zuten. Alemana ikasi zuen Marianek.

15. Euskara, etxeko hizkuntza

- **Erref**: DON-174/020
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:36:22. **Bukatu**: 00:37:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Dendan egiten zuen Marianek batik bat euskaraz. Horretarako, EUTGra joan zen, euskara hobeto ikasteko.

16. Bezeroekiko harremana

- **Erref**: DON-174/021
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:37:22. **Bukatu**: 00:39:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Dendariak egiten zuen lan osoa, baina presarik ez zen izaten.

17. Hondartzan ezin erantzi

- **Erref**: DON-174/023
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:40:02. **Bukatu**: 00:43:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Umetatik joaten zen Marian hondartzara, baina honek ez zuen gaur egungoaren antzarik. Gonadun bainujantziak ezagutu zituen.

18. Tresna eta teknologia berriak

- **Erref**: DON-174/024
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:43:07. **Bukatu**: 00:46:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Telebistarik ez zuen izan Marianek etxean hamazazpi bat urte bete zituen arte. Lehen garbigailua erosi zuten egunaz ere oroitzen da, baita postaria saskiarekin etortzea ere.

19. Txerrijana esnearen truke

- **Erref**: DON-174/025
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:46:25. **Bukatu**: 00:47:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Esnea etxez etxe saltzen zuten, eta txerrijana ematen zieten esnearen truke. Plazan ere saldu ohi zuten. Igeldotik etorri ohi ziren baserritarrak Donostiara, asto eta zaldi gainean.

20. Arrasate Kalea

- **Erref**: DON-174/026
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:47:53. **Bukatu**: 00:50:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Arrasate kalea eta ingurua nolakoa zen azaltzen du Marianek pasarte honetan.

21. Lehen kafetegia, California

- **Erref**: DON-174/027
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:50:16. **Bukatu**: 00:51:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Emakumeak ez ziren bakarrik tabernetara sartzen. Kafetegietara, ordea, bai. Donostiako Hernani Kalean zabaldu zuten lehena, California izenekoa.

22. Aitak igeri egiten irakatsi

- **Erref**: DON-174/029
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:54:34. **Bukatu**: 00:55:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:
Mariani igeri egiten aitak irakatsi bazion ere, Ondarretako hondartzan Yoldik pistina bat zuen, igeri egiten irakasteko.

23. Gasezko farolak eta gabarrak

- **Erref**: DON-174/031
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:56:02. **Bukatu**: 00:58:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Itsasoa » Arrantza motak » Gabarrantza

Laburpena:
Gizon batek pizten eta itzaltzen zituen banan-banan gasezko farola hauek. Gabarrak ere ezagutu zituen Marianek, urumean egoten ziren hondarra ateratzen.

24. Donostiako portua

- **Erref**: DON-174/032
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:58:45. **Bukatu**: 00:59:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:
Arrantza bizi-bizi zegoen Marian umea zenean, eta Donostiako portua garrantzitsua zen oso. Saregileak ere ohikoak ziren orduan.

25. Francoren bisitak

- **Erref**: DON-174/033
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:59:45. **Bukatu**: 01:02:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Franco maiz joaten zen Donostiara bisitan. Aietetik portura joan ohi zen, bertan zuen ontzira.

26. Erregina mezara berandu iritsi zenekoa

- **Erref**: DON-174/034
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 01:02:40. **Bukatu**: 01:03:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

27. Garai bateko pintxoak

- **Erref**: DON-174/036
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 01:05:12. **Bukatu**: 01:07:26

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Pintxoei "banderillas" deitzen zitzaien, pintxoena beranduago etorri zen. La Espiga izan zen banderillak egiten hasi zen lehena inguruan.

28. Serenoaren lanak eta auzoko giroa

- **Erref**: DON-174/037
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 01:07:26. **Bukatu**: 01:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Gauez ibiltzen zen taberna giroa kontrolatzen eta portalak zabaltzen.

29. Idazkari ikasketak

- **Erref**: DON-174/039
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 01:11:14. **Bukatu**: 01:14:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Idazkari izateko ikasketak burutu zituen Marianek, eta bi urte kanpoan eman zituen. Hogei urterekin, ordea, dendari lanetan hasi zen, erretiratu zen arte.

30. Donostiatik kanpo ikasten

- **Erref**: DON-174/041
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 01:16:39. **Bukatu**: 01:17:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Frantsesa ingelesa eta alemana ikasi zituen Marianek.

31. Sección Femeninako egunak

- **Erref**: DON-174/042
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 01:17:53. **Bukatu**: 01:20:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Sección Femeninako zerbitzu soziala egitea egotzi zitzaion Mariani.

32. Farmaziako ukenduak

- **Erref**: DON-174/045
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 01:23:20. **Bukatu**: 01:24:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Denda ondoko farmazian ukenduak egiten zituen Mario zelako batek.

33. "Dena konpondu egiten zen"

- **Erref**: DON-174/047
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 01:25:13. **Bukatu**: 01:26:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Garai batean dena konpontzen zen, baita aterkiak ere.

34. "Bellas artes" zinema

- **Erref**: DON-174/049
- **Iraupena**: 0:04:42. **Hasi**: 01:28:21. **Bukatu**: 01:33:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
"Sesión continua" ematen zuten bertan, pelikula bat bestearen atzetik.

35. Inauterietako karrozak

- **Erref**: DON-175/001
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:
Mendekostetako karrozan atera zen Marian "el circulo mercantil" zelakoan.

36. San Geronimo kaleko ikastola

- **Erref**: DON-175/003
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:02:43. **Bukatu**: 00:04:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastola klandestinora joaten zen Marian, Donostiako Alde Zaharreko San Geronimo kalera. Elbira Zipitria ezagutu zuen irakasle lanetan.

37. Amonak apain-mahaia Kasinoan

- **Erref**: DON-175/005
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:05:05. **Bukatu**: 00:07:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk

Laburpena:
Amonak tokadore bat zuen Donostiako Kasinoan (gaur egun udaletxea, ikus mapan), eta propina mordoa ematen zizkioten produktuen truke. Primo de Riveraren debekuen ondorioz itxi egin zuten Kasinoa.

38. Hondartzara joateko ohiturarik ez

- **Erref**: DON-175/006
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:07:21. **Bukatu**: 00:08:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Zuri-zuri egoten ziren denak, ez baitzen eguzkia hartzera joateko ohiturarik. Bainujantiak ere gorputz osokoak izaten ziren, luzeak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-27

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com